



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Gizarte Ekonomiako esperientziak  
lurraldeetatik sustatzen**

*Pablo Arrillaga Marquez  
eta Aratz Soto Gorrotxategi*

71-78 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.09>



## Gizarte Ekonomiako esperientziak lurraldeetatik sustatzen<sup>1</sup>

Arrillaga Márquez, P. eta Soto Gorrotxategi A.

*Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI)*  
pablo.arrillaga@ehu.eus; aratz.soto@ehu.eus

### **Laburpena**

Garapen agentziak, tokiko garapenerako funtsezko eragile gisa, urteak daramatzate EAEko udal eta eskualde ezberdinetako garapen egitasmoak dinamizatzen. Bestalde, Gizarte Ekonomiak, bazkideen eta gizartearen beharrak asetzera eta eraldaketa sozioekonomikoa sustatzea helburu duten izaera anitzeko antolakundeak biltzen ditu. Artikulu honetan, EAEko garapen agentzietatik Gizarte Ekonomia sustatzeko aurrera eramandako ekimen ezberdinak azaltzen dira. Horretarako, lehenengo, tokiko garapenari, Gizarte Ekonomiari eta hau sustatzeko esku-hartze publikorako marko orokorrari hurbilketa bat egingo zaio.

Hitz gakoak: Gizarte Ekonomia, Garapen agentziak, Lurraldea, Politika publikoak

### **Abstract**

*Development agencies, as key agents in local development, have been promoting development projects in different counties and municipalities of the Basque Country for years. On the other hand, the Social Economy brings together diverse organizations that aim to satisfy the needs of their partners and society and promote socioeconomic transformation. This article describes various initiatives carried out by the development agencies of the Basque Country to promote the Social Economy. To this end, first, an approach has been made to local development, the Social Economy and the general framework of public intervention for its promotion.*

*Keywords: Social Economy, Development Agencies, Territory, Public Policies*

### **1. Sarrera:**

Gizarte ekonomiak (GE), historian zehar sektore pribatu kapitalistatik eta sektore publiko estataletik kanpo garatu izan diren ekimen ekonomiko ezberdinak barneratzen ditu. Hain zuzen ere, haren oinarrietan dauden kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak bezalako ekimenak, XVIII. mendeko kapitalismo industrial berriak garaiko langileriaren gain sortzen zituen bizi eta lan baldintza latzen aurrean, klase herrikoien bulkada kolektibo batetik sortzen dira (Monzón, 2006). Hauek, langileen alderdiekin eta sindikatuarekin batera, langile mugimenduaren adierazpen garrantzitsuenak bihurtuko zirelarik (Laville eta Jané, 2009). XX. mendeko azken herenetik, GEk hazkunde nabaria izan du nazioartean, eta politikarientzat, gizarte-eragile eta -zientifikoentzat garrantzi handia duen ikerketa eremu gisa ezarri da (Monzón, 2006). Gainera, GEren forma tradizionalei gizarteratze enpresak, enplegu zentro bereziak, lan sozietateak etab. bezalako antolakundeak ere gehitu zaizkie.

Bestalde, XX. mendeko azken herenetik ere, estatuz azpiko lurraldeak garatzeko modua aldatu egin da. Prozesu globalizatzailarekin batera, lurraldeen eta, oro har, estatuz azpiko eremuen garrantzia ber-indartu dela argudiatzen dute autore askok (Brenner, 1999; Zurbano, 2005). Eta testuinguru honetan, euren garapenerako egitasmo propioak aurrera eraman dituzten lurralde ugari aurkitu ditzakegu munduan zehar. Lurraldeetatik bertatik sortzen diren garapen egitasmo berri hauek, tokiko garapena deritzon kontzeptu zabalaren aterki pean kokatu dira; kasu askotan, garapen prozesu hauek artikulatzeko, garapen agentziak deritzon eragile lokalak sortu direlarik.

---

<sup>1</sup> Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak (GEZKI) burututako ikerketa batetik eratorria da. Ikerketa horren finantzatzailea Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea (EGES) izan da, eta EAEko garapen agentzietatik Gizarte Ekonomia sustatzeko aurrera eramandako praktika onen inguruko analisia burutzeko helburua izan du.

Geure testuinguru hurbilean, bai GE eta baita ere tokiko garapena oso zabaldua dauden errealitateak dira. Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiaren (GEEB, 2020) arabera, EAEko GEn 88.000 pertsona baino gehiago lan egiten dute ia 5.000 antolakundeetan banatuta; EAEko enpleguen %9,5a, hain zuzen ere. Bestalde, tokiko garapenerako agentzien euskal elkartearen arabera (Garapen, 2019), EAEko garapen agentziak biztanleriaren %92ra heltzen dira.

## 2. Helburuak

Artikulu honen bitartez, tokiko garapenak eta GEk EAEn dituzten harremanetan sakondu nahi da. Horretarako, EAEko egoera orokorrari begiratuko zaio, eta ondoren, tokiko garapen agentzietatik GE sustatzeko politiken marko orokorrari hurbildu eta 4 adibide emango dira. Modu honetan, esperientzia konkrituak partekatu, ikusarazi eta beste eskualde batean erreplikatzeko beharrezkoak izango liratekeen elementuak antzeman daitezke.

## 3. Ikerketaren muina

### 3.1. Tokiko garapena eta EAEko garapen agentziak

Oro har, bere ikuskera ezberdinekin, globalizazioaren eta bere dinamiken aurrean, aktore lokalen erantzuna da tokiko garapena (Vázquez-Barquero, 2000). Hots, maila globalean sortzen diren eraginak jasotzen dituzten espazioak izatetik, lurraldeek, garapen estrategiak burutzen dituzte prozesu global hauek dakartzaten erronka berriei erantzuteko, tokiko jendartearen inplikazioarekin eta behetik gorako dinamikak sortuz (Vázquez-Barquero, 2007). Hala ere, erronka hauei emandako erantzunak, lurraldeak bezain anitzak izan daitezke; izan ere, lurralde bakoitzaren ardura eta lana da bere garapen prozesua aurrera eramatea. Eta beraz, lurralde bakoitzaren garapena, bere historian zehar garatutako harreman-, arau- eta jokabide-sozial, kultura eta abarren arabera baldintzatuta egongo da. Horregatik, zaila da tokiko garapenaren inguruko definizio bateratua aurkitzea. Dena den, oro har, tokiko garapena lurralde bateko baliabideak eta indarrak ardatz hartuta, eta tokiko gizartearen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin, lurraldean bertan sortutako estrategia kolektiboa litzateke (Pyke et. al., 2006). Eta helburu hori lortzeko tokiko egitura produktiboari begiratuko dion arren, tokiko garapenak esparru ekonomikotik haratago ere begiratzen du, lurraldearen ekonomia, gizartea, kultura, ingurumena etab. bezalako esparruak kontuan hartzen baititu (Zurbano et. al., 2018).

Tokiko garapenerako agentziak, garapen prozesuaren gobernantza artikulatzen duten agente lokalak dira. Horretarako, garapenean eragiten duten eragileen (enpresak, enpresen elkarteak, sindikatuak, heziketa zentroak, zentro teknologikoak, unibertsitatea, herri mugimenduak, GKEak etab.) inplikazioa bilatzera eta koordinatzera bideratuta daude. Estensoro eta Zurbano-k (2010) dioten moduan, haien eginkizuna funtsezkoa izan daiteke, alde batetik, lurraldeetatik abiatutako garapen prozesuak eta kapital soziala sortzeko, eta bestetik, tokiko baliabideak aktibatzeke eta ezagutza eta berrikuntza zabaltzeko.

Arestian esan bezala, EAEko garapen agentzia gehienak Garapen deritzon elkarteetan biltzen dira eta ia biztanleriaren osotasunera heltzen dira. Hala ere, denak ez dira berdin egituratzen. Eragin eremuari dagokionez, batetik, eskualdeetan eragiten duten garapen agentziak daude, eta bestetik, udal mailan eragiten dutenak. Egituraketari dagokionez, oro har, eskualde bateko udal ezberdinek sortutako erakunde publikoak izan daitezke, edo udalaren egituraren barnean dagoen departamentu baten izaera har dezakete. Jorrazten dituzten lan ildoak begira, garapen agentzia bakoitzak zehazten ditu bere lurraldean dauden behar nagusien arabera. Hala ere, Gainza eta Unceta-k (2011) dioten moduan, lan ildo ohikoenak, enplegua sortzea, ekintzazailtza sustatzea eta enpresentzako zerbitzuak eskaintzea dira.

### 3.2. Gizarte Ekonomia eta bere egituraketa EAEn

Bestalde, GE, garapen instituzional handia duen errealitatea da gaur egun. Ohikoa da, bere mugapena egiteko, antolakundeen izaeraren gaineko irakurketa juridikoa egitea. Horren arabera, kooperatibak, lan-sozietateak, mutualitateak, elkarteak, gizarteratze enpresak, enplegu zentro bereziak etab. bezalako antolakundeak barneratuko lirake. Hala ere, ikuspegi substantibo batetik sailkapen honen atzean dauden arrazoiak antzeman ditzakegu. Bere hastapenetatik, beti lotu izan da GE eta behar sozioekonomikoen asetzea. Horrela, enplegu- edo kontsumo-elkartuko kooperatibak edo elkarteak, elkarren arteko laguntzan oinarritutako mutualitateak edo funtsak, etxebizitza edo irakaskuntza kooperatibak, aurrezki kutxa kooperatiboak etab. horietako arlo bakoitzean sortzen diren beharrei aurre egiteko modu kolektiboan aurrera eramandako erantzunak dira. Funtsean, GEko antolakundeak autogestioan oinarritzen dira, jabego kolektiboa dute eta demokratikoki kudeatzen dira. Izan ere, ekoizpen baliabideen jabegoa bazkideek eurek daukate eta erabakiak “pertsona bat bozka bat” irizpide demokratikoarekin hartzen dira. Horregatik esan dezakegu, GE osatzen duten antolakundeak pertsonen inguruan eraikitzen diren antolakundeak direla eta ez kapitalaren inguruan. Antolakunde ez-kapitalistak edo a-kapitalistak dira, non onuradunen kategoria ez da inoiz inbertitzaile kapitalistengatik osatuta egongo. Hala, GEko antolakundeetan sortzen den balioa ez da plusbalioa sortzearekin lotzen, baizik eta bazkideen eta/edo interes orokorraren beharrak asetzearekin (Monzón, 2006). GEko antolakundeek eurek egindako mugapen kontzeptualari erreparatuta, hurrengo zazpi printzipioak agertzen zaizkigu (Monzón eta Chaves, 2012:20):

- Pertsonaren eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik
- Borondatezko atxikimendua
- Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak izan ezik, bazkideak ez dituztelako)
- Bazkideen interesen eta interes orokorraren bategitea
- Elkartasun eta erantzukizun printzipioen defentsa eta aplikazioa
- Kudeaketarako autonomia eta botere publikoekiko independentzia
- Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorraren, bazkideen interesen eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea

Ohikoa da Euskal GEz hitz egitean, Arrasateko talde kooperatiboa izatea burura etortzen zaigun lehenengo esperientzia. Hala ere, honetaz gain izaera anitzak dituzten beste esperientzia ugari aurkitu ditzakegu EAEn. Izan ere, historiari erreparatuta, Euskal Herria, herri aberatsa izan da esperientzia kolektibo, kooperatibo eta sozialei dagokionez; eta GE horren isla besterik ez da. Gaur egun, Euskal GEk sare egituraketa sendoa erakusten du. Euskal Gizarte Ekonomiaren Sareak (EGES) EAEn eragiten duten GEko beste sare gehienak saretzen ditu; sareen sarearen egituraketa emanez. Hauek, Konfekoop (Kooperatiben Konfederazioa), ASLE (Euskadiko Lan Sozietate eta parte hartutako enpresen Elkarte), EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte), Gizatea (Euskadiko Gizarteratze Enpresen elkarte), eta REAS Euskadi (Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarea) dira. Eta EGESetik kanpo, Olatukoop (Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sarea) eta Red Goratuz (Bizakiko kooperatiba txikien sarea) aurkitu ditzakegu.

### 3.3. Gizarte Ekonomia sustatzeko praktika onak EAeko garapen agentzietan

Antzeman dezakegun moduan, elkarlanerako espazio handia dago tokiko garapenaren eta GEn artean. Helburuetan aurkitu dezakegun bateragarritasunaz gain, biak beharretatik abiatuta eta behetik sortutako ekimenen bitartez aurrera eramandako esperientzia kolektiboak direlako, lurraldearekiko eta gizarte lokalarekiko lotura handia dutelako eta jendartearen bizi kalitatea hobetzera bideratuta daudelako. Izan ere, GE lurraldearekin eta tokiko gizartearekin lotura estua erakusten du, “jendearen zerbitzura diharduten jendearen enpresak” diren heinean (Guridi et al., 2011: 19).

Are gehiago, GE tokiko garapenaren helburuei erantzuteko orduan, enpresa kapitalistak baino bide eraginkorragoa izan daiteke bi arrazoi nagusiengatik: Lehen, GEk hartu ditzakeen forma ezberdinek helburu ezberdinetara hobeto egokitzea ahalbidetzen dutelako. Eta bigarrena, eskua-hartze publikoaren helburuaren eta GERen helburuaren arteko simetria handiagoa delako. Hurrengo taulan, tokiko garapenaren helburu ezberdinetarako GERen antolaketa ereduetatik hobeto egokitzen dena azaltzen da.

**taula 1: Esku-hartze publikoa eta Gizarte Ekonomiaren egituraketa**

<b>Esku-hartze publikoaren lehentasunezko helburua</b>	<b>Antolaketa formula egokiagoak</b>
Herritarren parte-hartzea sustatzea	Erabiltzaileen elkarteak Erabiltzaileen kooperatibak
Jarduera ekonomikoaren jabetza kolektiboa sustatzea	Jarduera ekonomikoa duten elkarteak Lan-sozietateak Lan elkartuko kooperatibak
Jarduera ekonomikoaren bidez gizarteratzea eta laneratzea sustatzea	Lan elkartuko kooperatibak Gizarteratze enpresak Enplegu-zentro bereziak
Kudeaketa publiko-kooperatibo edo komunitarioko formulak sustatzea	Partaidetza publikoko kooperatiba integralak Fundazio publikoak

Iturria: Egileek egina.

Helburuetatik politika konkretuetara igaroz, azken urteetan zehar emandako esku-hartze publikorako paradigmen aldaketak, Chaves-ek (2019) deritzon GE sustatzeko “bigarren belaunaldiko” politika publikoen markoa ekarri du. Autorearen iritziz, bigarren belaunaldiko politika publiko hauetara emandako biraketa honek, azalpen ezberdinak ditu: Batetik, 2008ko krisira arte nagusiki estatutik bideratutako aurrekontu-politikak bertan behera uzten direlako. Bestetik, 2015eko udal-hauteskundeen ondorioz, udal eta erkidegoetako hainbat gobernutara GE sustatzeko neurriei buruzko aipamen zehatzak jasotzen dituzten alderdi eta koalizioak heltzen direlako. Eta azkenik, krisia behin igarota, udal eta erkidegoko gobernuak asmo handiagoko programak proposatzeko aukera izan dutelako. Oro har, GE sustatzeko politika berri hauek hurrengo ezaugarriak dituzte:

- GEko eragile ezberdinekin ko-erakitako politika publikoak dira.
- GE sustatzeko tresna bakartuen orde, ikuspegi holistikoa jorratzen dute non dimentsio anitzeko planak eta jarduera ildoen arteko interkonexioak dituzten estrategiak planteatzen diren.
- Aurrekontuei baino, ekosistemak sortzeari lehentasuna ematen dioten politikak dira, non GERen inguruko eragileen (elkarteak, unibertsitateak, administrazioak, finantza-erakundeak, etab.) arteko eta jendarte zibilarekin elkarrekintza sistemikorako baliabideak aktibatu nahi dituzten.
- Udal edo erkidegoko gobernuetako politika orokorrekiko zeharka lantzen dira.

Neurri zehatzetara jotzen badugu, Chaves-ek (2010) GE sustatzeko politika publikoak bi multzo nagusietan sailkatzen ditu: GEko antolakundeetara bideratutako politika publikoak eta GEN enplegua sortzeko bideratutakoak. Lehenengoan artean, GERen eskaintzan oinarritutakoak (GERen hedapena eta ikerketa, ekintzaileentzako formakuntza programak, administrazio publikoaren aurrekontu- edo zerga- neurriak etab.) eta eskarian oinarritutakoak (kontratazio publiko arduratsua, lankidetzak publiko-kooperatiboak etab.) leudeke. Bigarrenen artean aldiz, GEko antolakundeen sorkuntza (aholkularitza, orientazioa, dinamizazioa, parte-hartzea, edo, zuzenean, jabetza publikoko GEko antolakundeak sortu) eta GEN ekintzailatza laguntzeko azpiegituren sorkuntza (kudeaketa komunitarioko azpiegitura edo ekipamendu publikoak) leudeke. GEN esku-hartze publikoko marko orokorra behin azalduta, politika hauek praktikan ikusi daitezkeen 4 esperientzia konkretu azalduko ditugu labur.

## Oñatiko Ur Jauziak

1980ko eta 1990eko hamarkadetan, ohikoak izan ziren udal ezberdinen eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) arteko lankidetzak akordioak herri horietan zentral hidroelektrikoak ezartzeko. Oñatiko Ur Jauziak (OUJ) lankidetzak hitzarmen horietatik sortutako enpresa publikoa da. 1992an sortu zen Oñatiko Udalaren eta EEE artean, eta udalerrian eraikitako zentral hidroelektriko txikien bidez energia sortzen du. 2018az geroztik, Goiener, energia berriztagarriak merkaturatzen dituen kooperatiba, enpresan sartu da. Beraz, gaur egun, kooperatiba baten partaidetza duen enpresa publikoa da OUJ.

Lankidetzak publiko-kooperatiboaren markoan kokatu dezakegun esperientzia honek bi aldeentzako onuragarria den akordio baten ondorioa izan da. Izan ere, alde batetik, Goienerrek energiaren merkaturatze arloa finkatu ondoren, energia sortzeko hainbat proiektu aztertzen hasi zen 2016. urtean. Bilaketaren ardatza zentral hidroelektrikoaren inguruko proiektuak ziren; izan ere, historikoki zentral horiek lurraldeetan oso errotuta zeuden arren, zaharkituta geratzen ari ziren nahiz eta ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez jasangarriak izaten jarraitzen zuten. Beste aldetik, EEEa pixkanaka ari zen zentral hidroelektriko horien inguruan sortutako enpresen partaidetzatik ateratzen, eta udalak bakarrik uzten ari zituen enpresa horien kudeaketan. Alabaina, kasu askotan udalek ez zituzten behar adina ezagutza teknikoak enpresa horien kudeaketa aurrera eramateko. OUJren kasuan, EEEak enpresaren kudeaketaren alde teknikoaz arduratzen zen eta Oñatiko Udalak alde administratiboaz. Horregatik, Goiener, EEEren eginkizunen ordezkari gisa ulertzen zen, eta aldi berean aukera bikaina ematen zion Goienerri tokiko kontsumorako energiaren sorkuntza aurrera eramateko.

Goiener, REAS Euskadi sarearen parte da, eta esan bezala, energia berriztagarriak sortzen eta merkaturatzen dituen moduan asmorik gabeko kooperatiba herrikoa da. Bere helburua energia burujabetza berreskuratzea da, horretarako herritarrek energiaren gaineko kontrola berreskuratzea nahi du, energiaren kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatuz.

Goiener OUJn sartzeko prozesua 2 urte baino gehiago luzatu zen. Izan ere, udalerrirako proiektu estrategikoa bezala kontsideratzen zen, eta beraz, alkatetzatik proiektua positibotzat jotzen zuten arren, beharrezkoa ikusi zuten erabakia talde politiko guztiek onartzea. Beraz, hasieran, Goiener Oñatiko Udaleko talde politiko guztiekin bildu zen, Goiener zer zen, zer balio zituen, zer ekarpen egin zezakeen eta zer proiektu gauzatu nahi zuten azaltzeko. Behin harremana eginda eta talde politikoak onartuta, beharrezkoa zen administrazio publikoari lotutako denborak eta prozedurak jarraitzea. Horrek esan nahi zuen administrazioak ezarritako gutxieneko baldintzak bete eta lehiaketa publiko bat irabazi behar zuela. Azkenean, lizitazioa 2018an atera zen eta Goienerrek irabazi zuen. Beraz, OUJren gaineko partaidetza modu honetan gelditu zen: Oñatiko Udala (%81), EEE (%9, azkenean ez baitzen enpresatik atera) eta Goiener (%10, Energiarekin deritzon bigarren graduko kooperatibaren bitartez). Lehiaketa publikoak, alderdi teknikoek gain, baldintza finantzarioak ezartzen zituen. Izan ere, aurrera eraman nahi zen eragiketa, kapitala handitzean oinarritzen zen. Akzioen %10 lortzeko, Goienerrek 500.000 €-ko “finantzaketa-leihoa” ireki zuen bere bazkideen artean; hala, Goienerreko bazkide diren pertsonak edo erakundeek borondatezko ekarpenak egin zituzketen proiektu hori finantzatzeko.

## Kimu Bat

Kimu Bat Azpeitian kokatzen den lan-sozietatea da. 30 urte baino gehiago daramatza paisajismoan eta lorezaintzan lanean, eta eskaintzen dituen zerbitzuen artean, mota guztietako paisajismoa diseinatu eta eraikitzea nabarmentzen da (lorategi eta terrazetan konponketak egitea, parkeak, igerileku naturalak, jolasguneak etab.), hala nola horien mantentze-lana eta lorategi, balkoi, baratze eta etxerako altzari eta apaingarri mota guztien zuzeneko salmenta. Hala ere, 2014. urtera arte, Kimu Bat sozietate mugatua zen; enpresa kapitalista bat, alegia. Alabaina, orain

aipatuko ditugun arrazoiengatik, Kimu Bateko langileek enpresa berreskuratu, eta GEren lan-sozietatearen formaren bitartez egituratzen da orain.

Lan-sozietate bihurtzeko abiapuntua 2010ean dago. Garai hartan, egoera ekonomikoa txarra zen krisiaren ondorioz, eta enpresak 4-5 urte larri igaro zituen bere biziraupena ziurtatuta ez zegoelarik. Egoera horren aurrean inor ez kaleratzeko erabakia hartu zen. Horretarako, lanaldi-murrizketak edo kaleratzea eta ondoren berriro kontratatzea bezalako neurriak hartu behar izan zirelarik. Gainera, 2013. urtean, enpresaren jabeetako baten errelebu eza gehitu behar zaio. Garai hartan, sozietate mugatua 4 bazkiderena zen, eta haiek eramaten zuten zuzendaritza. Hala ere, enpresaren jabeetako batek erretiroa hartuko zuen eta lidergo falta aurreikusten zen. Bi arazo horien aurrean (egoera ekonomikoa larriagatik gero eta ordainketa gehiago egin behar baitzitzazkion ogasunari, nahiz eta aurretik deskribatutako neurriak hartu, batetik, eta belaunaldi-erreleboa falta, bestetik), langile batek ideia bat izan zuen: langileak enpresaren jabe egitea.

Langabeziaren kapitalizazioa erabiliz kooperatiba bihurtzeko aukera jarri zen mahai gainean, betidanik egon baita partaidetzaren kultura enpresan. Zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen artean ere harreman zuzena zegoen, eta bai enpresaren jabeek bai langileek garbi ikusten zuten, unea zaila izan arren, enpresak etorkizuna zuela. Ideia ondo hartu zuten alderdi guztiek, eta, hala, 2013ko abenduan hasi ziren birmoldaketa-prozesua egiteko bilerak. Prozesu azkarra izan zen, 6 hilabete ingurukoa. Birmoldaketa-prozesuan, Urola Erdiko garapen agentziari (Iraurgi Berritzen) egindako kontsulta baten ondorioz, kooperatiba bat baino, lan-sozietatearen izaera juridikoa hobeto egokitzen zela erabaki zuten. Horrez gain, ASLEren laguntzarekin, egin beharreko tramite legalak burutu ziren eta egin beharreko kapital ekarpenak baloratu ziren. Partaidetza berdinzaleak adostu erabaki ziren, langile bakoitzak partaidetza bera izan zezan kapital sozialean. Orduetik, Kimu Batek kudeaketa- eta jabetza-eredu parte-hartzailea aurrera eramaten du.

### **Lanerain**

Lanerain Eibarren kokatzen den gizarteratze enpresa bat da, bere helburu nagusia gizarte bazterketako arriskuan edo egoeran dauden gazteak enplegatzea delarik. Eraikuntzaren sektorean jarduten du, eta, zehazki, hiri eta etxeetako berrikuntzetan eta mantentze-lanetan aritzen da. Debabarrenako garapen agentziaren (DEBEGESA) eta Gizatearen arteko lehenengo harremanaren ondoren, gizarteratze enpresen inguruko bilera bat burutu zen Debabarrenako Inklusio Sareko kideak bildu zituena. Sare honetan, gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetan parte hartzen duten eskualdeko hogeita hamar eragile baino gehiago bilduta daude. Bilera horren ostean, Inklusio Sareko bi eragileek beren interesa erakutsi zuten: Alde batetik, Edukeibar S.L. enpresa, Azitain-Eibarko oinarrizko lanbide heziketako zentroa kudeatzen duena eta gazteak eraikuntzan eta ostalaritzan prestatzen dituena batez ere. Eta bestetik, Kalexka Elkarteak, gizarteratze baztertuak izateko arriskuan dauden gazteak laguntzen dituena. Hortik aurrera, eta bilera gutxi batzuen ondoren, gizarteratze enpresa bat sortzeko prozesua abiatu zen, 2019. urtean.

Lanerainen egituraketari dagokionez, bere sorkuntza prozesuan parte hartu duten eragileek parte hartzen jarraitu zuten bere kudeaketan. Jabegoari dagokionez, Edukeibar S.L. enpresak eta Kalexka Elkarteak kapital sozialaren %49a daukate bakoitza. Eta DEBEGESA, eskualdeko 8 udalen jabetzakoa dena, eta hasieratik prozesuaren dinamizatzailea izan zena, kapital sozialaren %2a eskuratu zuen. Horrela, beste bi erakundeen artean kokatu zen giltzarri lana eginez. Gainera, Lanerainen mozkin asmorik gabeko izaera bermatzen zuen, jabegoaren gehiengoa mozkin asmorik gabeko antolakundeek baitzuten. Zoritxarrez, Lanerainek ezin izan du Covid-19aren krisia gainditu eta hiru bazkideek uztailan aurrera eramandako bilera baten ondorioz, Edukeibar S.L.-k beste bazkideei beren partaidetza erostea erabaki zen; gizarteratze enpresa izateari utziz. Dena dela, oso adibide aberasgarria izan da garapen agentzia batek GEko enpresa baten sorkuntza dinamizatu eta bertan ere parte hartu duelako.

### **Azaro Fundazioa eta kooperatiben mahaia**

Azaro Fundazioa (AF) Lea-Artibaiko garapen ekonomikoa sustatzeko helburua duen fundazioa da; horretarako, inguruko kapital soziala dinamizatzen duelarik. 2002. urtean sortu zen, Lea Artibai Ikastetxearen (Arrasateko talde kooperatiboko kooperatiba integrala) ekimenez. Gaur egun, Lea-Artibaiko gobernantza eredu zabalean parte hartzen du. Izan ere, plan estrategiko beraren inguruan lan egiten dute AFk berak, Leartibai garapen-agentziak, Lea Artibai Ikastetxeak eta Leartiker zentro teknologikoak. Entitate horietako bakoitzak bere kudeaketa plan propioa dauka, plan estrategiko orokorrarekin bat datorrena. Beraz, bakoitzak bere esparrutik ekarpena egiten diote eskualdearen plan estrategiko orokorrari.

AFren jarduera-ildo nagusiak hauek dira: enpresen sustapena, enpresen lehiakortasuna sustatzea eta negozio- eta berrikuntza-aukerak identifikatzea behatoki baten bidez. Ekimen hauek enpresaren izaerari erreparatu gabe aurrera eramaten diren arren, AF sortu zenetik, oso argi daukate bertan eredu kooperatiboa lehenesten dutela, eta, ahal denean, kooperatibak bultzatzen dituztela. Izan ere, kooperatibismoa oso errotuta dago lurraldean. Beraz, aurreko zerbitzu orokorrez gain, eskaintza bereiztua dauka eredu kooperatiboa jarraitzen duten proiektuentzat. Ildo honetan, 2003. urtean Kooperatiben Mahaia sortzen da. Hasieran, AFren barruko beste lan-ildo bat bezala sortu zen, Lea-Artibain eta inguruko eskualdeetan GEko enpresak sortzerakoan laguntza emateko eta GEren balioak zabaltzeko. Kooperatiben Mahaiak eskualdeko zazpi kooperatiba biltzen ditu, eta laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta jarraipena eskaintzen dizkie Lea-Artibain eta inguruko eskualdeetan (Debabarrena, Durangaldea eta Busturialdea) sortzen diren kooperatiba berriei. Horretarako, funtsezkoa izanik eskualde horietako garapen agentziekin lankidetzan-nodoak sortzea.

Mahaia osatzen duten kooperatibek funtsa bat sortu zuten, itzuli beharrik gabeko hasierako inbertsioei laguntza ekonomikoa eman ahal izateko. Funts hori, hasieran, AFk kudeatzen zuen, baina proiektua egonkortu ahala, beharrezkotzat jo zen beste erakunde bat sortzea hura kudeatzeko eta ildo horretan egiten ari zen lana aurrera eramateko. Beraz, 2006an Kooperatiben Mahaia Elkarteak sortu zen, eta horrela nortasun propioa lortu zuen. AFk aholkularitza teknikoaren ematen eta dinamizatzailea izaten jarraitzen du; eta Kooperatiben Mahaia Elkarteak kudeatzen duen funtsa, esan bezala, itzuli beharrik gabeko hasierako inbertsioei laguntza ekonomikoa eskaintzen die ekimen kooperatibo berriei. Proiektu bakoitzak 2.000 eta 30.000 euro arteko laguntza jaso dezake hasierako inbertsio horiek egiteko. Horretarako, mahaiak erabakiko du proiektua babesten duen ala ez eta zer neurritan egiten duen.

### **4. Ondorioak**

Ondorio orokor gisa, tokiko garapenaren eta GEren arteko bateragarritasun handia dagoela esan dezakegu. Helburuei begira, biek bilatzen baitute tokiko jendartearen bizi kalitatea hobetzea eta beharrak asetzea. Gainera, jarraitutako estrategietan edo aurrera eramandako politikan ere konbergentzia gradu handia aurkitu dezakegu. Tokiko garapenerako lehenetsutako lan ildoak eskatzen dituzten ekimenak aurrera eramateko, GEk horietako bakoitzera egokitutako forma ezberdinak eskaintzen dizkiola ikusi baitugu. Modu honetan gainera, politika publikoaren helburuaren eta prestatutako zerbitzuaren arteko simetria handitzen da GE denean zerbitzua eskaintzen duena. Bestalde, GEk tokiko garapenaren ohiko helburu bikoitzari erantzuna ematen dio: Enplegua sortu eta tokiko ekonomia dinamizatu. Are gehiago, GEren balioei eta egituratzeko formei esker, kohesio soziala handitzea, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, ekonomiaren demokratizazioa, burujabetzak berreskuratzea etab. bezalako onurak erartortzen dira.

Maila enpirikoan, artikulua hau oinarrituta dagoen ikerketa orokorretik, eta artikulua honetarako bildu ditugun esperientzietatik, GE sustatzeko neurri anitz eta ugari daudela ondorioztatzen da.



Eta beraz, tokiko behar ezberdinei aurre egiteko aukera dagoela beste eredu ekonomikoa proposatzen duten antolakundeen bitartez.

## 5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Etorkizunari begira, artikulu honen –eta artikulu hau eratortzen den ikerketaren– helburua, GE tokiko mailan sustatzeko dauden aukerak ezagutaraztea izan da, pixkanaka tokiko garapen agentzien ekintza GE sustatzeko formuletara bideratzen laguntzeko. Hortaz, etorkizun hurbileko norabidea, garapen agentzietatik GE sustatzeko politikak aplikatzen joatea litzateke; eta horretarako, hemen gida bat aurkitu dezakete. Eta epe luzeago batera begira, GE tokiko garapenaren ildo estrategiko gisa kontsideratu eta garapen agentzietako lan ildo ezberdinetan zeharka lantzea interesgarria izango litzateke.

## 6. Erreferentziak

- BRENNER, N. (1999): Globalisation as reterritorialization: the re-scaling of urban governance in the European Union, *Urban studies*, 36(3), 431-451.
- CHAVES, R. (2010): Las actividades de cobertura institucional: infraestructuras de apoyo y políticas públicas de fomento de la economía social, In Monzón, J.L. (Dir.): *La Economía social en España en el año 2008*, Ed. CIRIEC-España, Valencia, 565-592.
- CHAVES, R. (2019): La segunda generación de políticas de fomento de la economía social en España y en la Comunitat Valenciana. Un primer balance, In Fajardo, y Chaves, (Dir.): *La economía social en la Comunitat Valenciana: regulación y políticas públicas*, CIRIEC, 19-30.
- ESTENSORO, M. eta ZURBANO, M. (2010): Innovación social en la gobernanza territorial: Innobasque y las redes comarcales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, *Ekonomiaz Revista vasca de Economía*, 74(2), 131-159.
- GAINZA, X., eta UNCETA, K. (2011): Los factores socio-territoriales y su incidencia en las estrategias locales de desarrollo: El caso de las agencias de desarrollo local en el País Vasco, *Revista de Estudios Regionales*, (92), 113-143
- GARAPEN, (2019): 2019 Memoria, tokiko garapenerako agentzien euskal elkarte. [[http://www.garapen.net/documentos/ficheros/documentacion es/GARAPEN Infografia 2019 ES.pdf](http://www.garapen.net/documentos/ficheros/documentacion_es/GARAPEN_Infografia_2019_ES.pdf) ]
- GEEB (2020): Dossier territorial de la economía social, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (OVES/GEEB), Donostia. [[http://oves-geeb.eus/app/uploads/2020/11/Dossier Territorial ES VF.pdf](http://oves-geeb.eus/app/uploads/2020/11/Dossier_Territorial_ES_VF.pdf)]
- GURIDI, L., PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C., IAMETTI, A., DEUX, M. V., VÁZQUEZ, G. eta URIBE, A. (2011): Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes, *Papeles de economía solidaria*, 2, 1-77.
- LAVILLE, J.L. eta JANÉ, J.G. (2009): Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real, *Icaria*, Barcelona.
- MONZÓN, J.L. (2006): Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (56). 9-24.
- MONZÓN, J.L. eta CHAVES R. (2012): La economía social en la Unión Europea. Comité Económico y Social Europeo. [<https://www.eesc.europa.eu/resources/docs/qe-30-12-790-es-c.pdf> ]
- PIKE, A., TOMANEY, J., eta RODRIGUEZ A. (2006): *Local and regional development*, Routledge.
- VÁZQUEZ-BARQUERO, A. (2000): Desarrollo endógeno y globalización, *EURE*, 26(79), 47-65.
- VÁZQUEZ-BARQUERO, A. (2007): Desarrollo endógeno. Teorías y políticas de desarrollo territorial, *Investigaciones regionales*, (11), 183-210.
- ZURBANO, M. (2005): Las regiones como sujetos de la economía global. Euskadi en la gobernanza multidimensional, *Ekonomiaz Revista vasca de economía*, (58), 196-231.
- ZURBANO, M., MARTINEZ, E., GAINZA, X., eta ARRILLAGA, P. (2018): Globalizazioa eta tokiko garapena, *Hegoak Zabalduz*, 8 zk., UPV-EHU, Bilbo.